

Memoria
2020-2021
Donostiako Emakumeen Etxea



Donostiako
Emakumeen
Etxea

Memoria
2020-2021

2020/2021 ikasturteko memoria.
Donostiako Emakumeen Etxea.

Edizioa, maketazioa eta diseinua: Kalaka Koop. Elk. Txikia
Argazkiak: Itziar Bastarrika
Inpresioa: Leitzaran Grafikak
Donostia 2021



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



Aurkibidea

6 Aurkezpena

7 Emakumeen etxea

8 Organigrama

9 Elkarrizketa

12 Datu orokorrak

14 Erabiltzaileei buruzko datuak

18 Aurrekontua

19 Etxeko Hobekuntzak


20 Zerbitzuak

25 Elkarguneak

30 Matraka guneak

36 Formakuntzarako blokeak

43 Ekintzak

A black and white photograph of a woman with dark, curly hair, wearing a fur vest over a dark shirt. She is holding a large, hand-drawn sign that reads "POWER TO THE PEOPLE". She is also holding a cigarette in her left hand and has a small bag slung over her shoulder. The background features a brick wall and a metal fence.

POWER
TO THE
PEOPLE

Aurkezpena

Emakumeen Etxea

Irailean ireki genuen berriro, 2020ko udaberri-udako itxialdi izugarriaren ondoren. Maskara aurpegian, espazio eta edukiera mugekin. Baina ondo kargatutako talde eta formazio programa batekin.

Jarduera batzuk etxetik kanpo atera eta beste leku batzuetara eraman behar izan ditugu, ez baitziren sartzen. Eta beste batzuk ezin izan dira egin, leku faltagatik. Hitzaldiak, aurkezpenak, topaketak, kanpoko eragileek antolatutako jarduerak... falta izan zaizkigu. Beste urte batzuetan baino itxaron-zerrenda handiagoak egon dira ikastaroetarako eta topaguneetarako.

Eta, hala ere, pozik gaude: ikastaro guztiak beteta, zerbitzuak topera. Emakume gutxiago hurbildu da galdezka, baina telefonoa jo eta ke. Etxe bizia. Berriro ere bizirik atera gara, baina... Hola!

Etxe handiago bat behar dugu!



Organigrama



Elkarriketa

Etxeko Blokea

Parte hartzaileak: Arantxa Lucas, Josune Otamendi, Belén Olaziregi, Aitziber Del Amo, Raisa Garcia, Juana Aranguren, Ana López, Elena Rincón, Mariví Eizagirre, June González eta Ana Lopez.

indarkeria anitzei erantzuteko eta Etxe bezala aldarrikapen feministekin bat egitea. Kaleak hartzeko etxetik nortasun politiko feminista sortzea zen asmoa. Hori izan da gaur egun Blokea deritzonaren konfigurazio-prozesua.

Noiztik dago blokea?

2018ko Emakumeen Etxeko Batzar Nagusian, hainbat pertsonen mahai ganean jarri genuen “Emakumeen Etxeko Blokea” sortzeko beharra. Helburu nagusi hauek genituen: bazkide guztiei dei egitea eta mobilizatzea

Zergatik ikusi duzue sortzeko beharra?

Etxera etortzen ginenean tailerretan parte hartzeko aukera izaten genuen, hausnarketa feministarako eta lanerako espazioak ematen ziren batzordeen bitartez, baina kaleak etxeko bazkide gisa okupatzea falta zitzaigun.





Gainera, zenbait unetan, etxeak bere autonomia sortzeko beharra ikusten zuen, mugimendu feministaren barruan hainbat ekintza deitzeko, eta horretarako lantalde bat behar zen, “beste” deialdi horiek zuzenduko zituen.

Bestalde, Blokea sortzeko beste premia bat emakumeak biltzea izan zen; izan ere, manifestaziora joan nahi izan arren, adibidez, bakarrik joaten ausartzen ez ziren emakumeak zeudela ikusten zen. Kasu horietan, Blokea izango litzateke manifestaziora elkarrekin joateko erreferentziazko espazioa.

Zer egin duzue urtean zehar?

Ikasturte honetan hainbat ekintza egin ditugu. Azaroaren 25ean elkartu ginen Etxean denok batera manifestaziora joateko.

Martxoaren 8an, manifestazioa Antiguatik ateratzen zenez, bazkide guztiak elkarrekin ateratzeko asmoz, deialdia egin genuen gure egoitzatik Antiguara joateko, eta arrakasta handia izan zuen.

Berriena maiatzaren 24a izan da, Gerraren eta armagabetzearen aurkako emakumeen eguna, eta ekintza bat egin genuen hemen, Euskal Herrian, ditugun enpresa militarrek salatzen.

Amaitzeko, urtean zehar funtsezko datetan lan egiteaz gain, Donostiako mugimendu feministak egiten dituen deialdiekin bat egiten dugu.

Zein dira etorkizunerako dituzuen asmoak?

Alde batetik, etxe berri bat behar dugula aldarrikatzeko ekintzak egitea.

Bestalde, beste militantzia eta aktibismo talde batzuetan ez dauden eta kaleetan

aldarrikatu nahi duten emakumeentzako erreferentzia-gune izaten jarraitzea.

Horrez gain, lanerako data garrantzitsuei eutsi nahi diegu: martxoaren 8a, maiatzaren 24a, ekainaren 28a, azaroaren 25a... Gai antimilitarista lantzea eta urtean zehar sortzen ari denari aurre egitea, indarrek eta egoerak uzten diguten neurrian.

Orain arte esandakoari beste zerbait gehitu nahi al diozue?

Etxe handiago bat behar dugu, ia ez baitago tokirik aktiboki parte hartzen dugun emakume guztientzat, eta, ondorioz, harremanak galtzen ari gara gainerako bazkideekin.



Datu orokorrak

Bisita kopurua -2021 urtariletik
ekainera-: **6091***

Hileroko bataz bestekoa: **1015**

Eguneko: **56**

Elkarteko bazkide kopurua: **1626**

Kogestio bilerak: **5**

Etxean egiten diren ekintzen berri eman da:

- Donostiako Gizarte Zerbitzuak auzoetan dituzten bulegoetan, GLUZ (Gizarte Larrialdietarako Udal Zerbitzua) eta Genero Indarkeriaren Biktimen Arreta Zerbitzuan, azken hauekin bereziki elkarlan eta harreman estua dugu
- Donostiako Udaleko Kultur Etxeetan eta Gaztelekuetan
- Gaztetxeetan
- Martuteneko kartzelan
- Donostiako Anbulatorioetan eta Osasun Mentala, Osakidetza
- Gipuzkoako Itxaropen telefonoa
- Gurutze Gorria Gipuzkoa
- Caritas
- Gizarte bazterketa eremuan, adin txikikoekin, emakumeekin, etab. lan egiten duten erakundeetan
- Emakumeen Etxea Elkarteko bazkideen artean
- Euskara Sailean
- Tabakalera
- Hainbat Udaletako Gizarte Zerbitzu, Kultur Sailetan eta Berdintasun sailetan
- Hainbat Elkarte desberdin

Espazioen erabilera

Emakumeen Etxea Elkarteko batzorde eta proiektuak:

- Demoleedoras Literatura Batzordea
- Emakumeen Etxea elkarteko barne bilerak
- Xake Batzordea
- Batukada Batzordea
- “La antiagresiones” Batzordea
- Zine Batzordea
- Artikulazio Batzordea
- Emakumeen Etxeko BLOKEA mobilizazioetarako
- Emakumeen Etxea Elkarteko koordinadora
- Akuerpadoras Batzordea

Emakume taldeak eta talde feministak:

- Plazandreak
- Koordinadora feminista
- Zaintza talde motorea
- Emakumeen Etxea Elkartea
- Lahia Neska Gazteen Taldea
- Bilgune Feminista
- Emakumeak eta hiria foroa

*Ez ditugu datu horiek 2020ko iraila eta abendua bitartean.

- Garaipen Elkarte
- Bidez bide
- Donostiako Asanblada Feminista
- Emakumeen Mundu Martxa
- SORTZEN
- Mariren Alabak
- Erroak Sartu Emakumeen Taldea
- EMAGIN
- LAB Emakume pentsiodunak
- Zaintzak Erdi Gunera Euskal Herriko Koordinadora Feminista
- AMUGE - Euskadiko Emakume Ijitoen Elkarte

Bisita gidatuak:

- Andoaingo Udala
- Astigarragako Udala

Donostiako Udalak antolatutako saio eta formazioak:

- Udaleko gizarte langileentzat formazioa indarkeria matxistaren inguruan: Kasu konplexuak (Sortzen)
- Udaleko gizarte langileentzat formazioa indarkeria matxistaren inguruan: Indarkeriari aurre egiten dieten ama eta seme alaben errealitateak
- Autodefentsa Feminista Udaleko Mugikortasun agenteak
- Puntu Kritikoen Maparen proiektuaren bilerak
- Generoaren araberako inaktuaren aurre ebaluazioa Hirigintza arloan Formazioa Hirigintza arloko arkitektu eta aholkulari juridikoak eta Berdintasun saileko teknikariei zuzendua

Beste erakunde publikoek antolatutako saio eta formazioak:

- Sendian
- Hezkuntzako eta Unibertsitateko ikasleek eskatzen dituzten elkarriketak burutu

Bestelako ekimenak:

- Lumaltik
- Bakerako Lankidetzaz Batzarra
- JATORKIN
- CEAR Emakume errefuxiatuak
- Erroak Sartu
- HIK HASI
- Loreak (Txiki Txoko)
- Garagune Fundazioa Goienetxe Fundazioa
- Osakidetza
- Biktimari epaitegian laguntzeko zerbitzua


Erabiltzaileei buruzko datuak

2020-2021 ikasturtean zehar, 19 tailer eta 17 ahalduntze-talde eskaini ditugu, eta 729 izen-emate izan dira horietan. Zerbitzuei dagokienez, 987 hitzordu izan dira uztaile arte. Ahalduntze-talde eta tailerretan parte hartu duten 477 emakumeren eta zerbitzuetara joan diren 476 emakumeren datu osoak ditugu.

Ohikoa den bezala, erabiltzaileen datu orokorrak aztertuko ditugu, bai zerbitzuei buruzkoak, bai ikastaroei buruzkoak (hemen ahalduntze-taldeak eta tailerrak sartzen ditugu), eta batzuen eta besteen artean alde nabarmenak dauden kasuetan, aipatu egingo ditugu. Zerbitzuen erabilera eta ikastaroetan parte hartzea konbinatu dituzten emakumeen ehunekoa txikia da oraindik ere (% 4,37), nahiz eta apur bat igo den aurreko ikasturtearekin alderatuta.

Erabiltzaileen bizilekutik hasiko gara. Bertan, ikusten dugu Gipuzkoako gainerako lurraldeetako erabiltzaileen ehunekoak behera egiten jarraitzen duela, aurreko ikasturtean % 26,5 izatetik % 20,13 izatera, ziurrenik probintzian Emakumeen Etxe berriak agertu zirelako.


Parte hartzaileen jatorria



* Donostiako datuak kenduta

Adin-tarteak aurreko ikasturtean antzera mantendu dira: 26tik 65era bitarteko 4 tarteak nagusitzen dira argi eta garbi, bakoitza % 20aren bueltan. Hala ere, 26-35 urte arteko adin-tarteak gora egin du, eta 56-65 urte bitartekoak behera. Lau tarte horietatik kanpo, hau da, 26 urtetik behera eta 65 urtetik gora, jaitsiera nabarmena dago, aurreko urteetan ikusi zen bezala.


Erabiltzaileen adina



Adinaren aldagaian aldeak daude oraindik zerbitzuen erabiltzaileen eta ikastaroetako parte-hartzaileen artean. Zerbitzuen erabiltzaileen artean, 25etik 55era bitarteko 3 tarteak berdindu dira, eta horietako bakoitza % 25 ingurukoa da. 56-65 tartean, berriz, beherakada nabarmena izan da, % 10era. Tarte hori bera da, ordea, ikastaroetako ugariena (56-65), parte-hartzaileen % 22koa. Gainera, ikastaroetan, 26tik 35era bitarteko adin-tartea nabarmen hazi da (% 21,38). Hala, ikastaroetan parte hartzen dutenen batez besteko adina 47koa da, eta zerbitzuen erabiltzaileena, berriz, 4 urte hazi da (45,33 urte); beraz, batzuen eta besteen arteko aldea 1,8 urtera murriztu da.

Egindako ikasketei dagokienez, kopuruak aurreko ikasturtekoen oso antzekoak dira, eta unibertsitate-ikasketak dituzten emakumeak dira nagusi (% 50,5). Bigarren lekuan daude bigarren mailako ikasketak (% 21) eta hirugarrenean Lanbide Heziketako ikasketak (% 14).

Erabiltzaileen ikasketak



Atal honetan alde nabarmenak daude oraindik zerbitzuen erabiltzaileen eta ikastaroetan parte hartzen dutenen artean. Ikastaroetako parte-hartzaileen ia bi herenek unibertsitatekoak izaten jarraitzen dute (% 64); zerbitzuen erabiltzaileen artean, berriz, unibertsitate-ikasketak dituzten emakumeak herena baino ez dira (% 33,1), eta


beste heren bat bigarren hezkuntzako ikasketak dituztenak dira (% 33,6). Azken horiek, ikastaro-taldean, % 12 baino ez dira.

Erabiltzaileen lan-egoerari dagokionez, berriz ere irauli egin da, eta lehen postura itzuli dira “lanaldi osoko besteren konturako langileak”, % 27rekin; lan-gabezia dauden emakumeen ehunekoa, berriz, bigarren postuan dago, % 25ekin. Deigarria da norberaren konturako langileen ehuneko txikia, % 3,57.

joaten baitira. Hala ere, zerbitzu bakarrera jotzen duten emakumeen ehunekoak behera egin du iazko ikasturtearekin alderatuta (% 75etik % 69ra), eta, beraz, igo egin da zerbitzuetara 2 aldiz edo gehiagotan jo duten emakumeen ehunekoa (% 31). Horrek esan nahi du etxeak zerbitzu ugari eskaintzen dizkiela emakumeei, edo jarraipena egiten diela, zerbitzu bera hainbat aldiz erabiltzeko aukera emanda.

Emakumeen Etxea elkarteko bazkideen ehunekoa jaitsi egin da erabiltzaileen artean (% 33tik % 25era). Oraindik ere alde nabarmenak daude ikastaroetan parte hartzen dutenen (% 41 bazkideak dira) eta zerbitzuen erabiltzaileen (% 6,5 baino ez) artean.


Erabiltzaileen lan egoera



Aurreko ikasturtean bezala, emakume gehienek ikastaro batean (% 69) edo bitan (% 19) parte hartzen dute. Antzekoa da zerbitzuetara jotzen duten emakumeen ehunekoa, gehienak behin edo bitan

Bazkideak

Bazkideak



Bazkide ez direnak


Erabiltzaileen jatorriari dagokionez, datu globalei erreparaturaz gero, 10 puntu igo da Amerikatik etorritako erabiltzaileen ehunekoa, eta 15 puntu jaitsi da Espainiatik etorritakoena. Afrikatik (Marokotik gehienak), Europatik eta Asiatik etorritako emakumeen kopuruak ere gora egin du. Amerikako kontinentetik datozenen artean, % 28 Honduraskoak dira, % 16 Nikaraguakoak, % 14 Kolonbiakoak, eta gainerako herrialdeak, hala nola Bolivia, Ekuador, Kuba, Argentina edo Peru.

Aldagai horrek ematen du alderik handiena zerbitzuen erabiltzaileen eta ikastaroetan parte hartzen dutenen arteko konparazioa egitean. Zerbitzuen erabiltzaileen artean, % 55 kontinente amerikarretik datoz, eta herrialdeen arteko banaketa aipatu berri dugunaren ia berdina da. Ikastaroetan parte hartzen dutenen artean, berriz, % 19 baino ez dira Amerikatik etorritakoak (hala ere, ehuneko hori bikoiztu egin da aurreko ikasturtearekin alderatuta), eta % 70, berriz, Espainiako estatutik.

OHARRA:

Aztertzen ari garen unibertsoa 915 emakumek osatzen dute. Ez daukagu guztiei buruzko informazio osatua (fitxak) eta, hortaz, alderdi bakoitza aztertzean daukagun informazioa erabiltzen dugu. Hori dela eta, baliteke guztizko kopurua aldatzea alderdi batetik bestera.

Erabiltzaileen jatorria



Aurrekontua

Hurrengo taulan jaso dugu Donostiako Udalak Emakumeen Etxeari egiten dion ekarpen ekonomikoa. Horrez gain, udaleko langile bat dago Emakumeen Etxeko koordinazio eta dinamizazio lanak egiten lanaldi osoan.

1. Emakumeen Etxea Elkartarekin hitzarmena:

Hitzarmena Emakumeen Etxea espazioa dinamizatzeko arratsaldetan 46.000,00

2. Pertsonala:

Bi udal langile, bat lanaldi osoan eta bestea lanaldi erdian 83.245,62

3. Ikastaroak, ahalduntze taldeak eta zerbitzuak

Autodefentsa ikastaroak	5.112,00
Mujeres por una vida libre de violencia	5.635,80
Kultura aniztasuneko taldea	7.050,60
Literatura taldeak: Iratxe Retolaza eta Parleras	4.320,00
Etxeko langileen aholkularitza zerbitzua	4.950,00
Lege aholkularitza	4.950,00
Aholkularitza juridiko eta gizarte esku-hartzea	4.950,00
Biluzik Mundura Sexualitate eta genero aholkularitza	7.425,00
Norbanakoaren jabekuntzarako gunea	9.900,00
Gizarte aholkularitza	3.025,00
“Iguálate” ikasketak homologatzeko zerbitzua	7.425,00
Aholkularitza laguntza taldea	3.435,00
Aniztasun funtzionala duten emakumeen taldea	9.900,00
Mugimendua eta gorputza	1.044,00
Empalabramiento	1.154,98
Neska gazteentzako jabekuntza gunea	4.965,00

4. Eraikinaren mantenua eta mobiliarioa

Gastu korrontea (telefonoa, garbiketa, fotokopiak, argindarra, komunitatea, konponketa txikiak)	50.795,85
Obrak: lehioak, pertsonen kontagailu berria eta aireztapen-sistema	17.860,07

5. Komunikazioa

Argazkiak eta bideoa	2.146,50
Gitarrak: diseinua, maketazioa eta inprenta	1.208,40
Urteko memoriaren argitalpena: diseinua eta maketazioa	4.845,60

GUZTIRA:

291.345,17€

Ekarpen honez gain, **Gipuzkoako Foru Aldundiak** Emakumeen Etxea Elkarteari 38.500 euroko diru laguntza ematen dio, eta horri esker egiten dira emakumeen zine ikustaldiak Antzoki Zaharrean, ikastaroak, tailerrak, jardunaldiak, hitzaldiak, batukada, difusio kanpaina eta abar.

Emakumeen Etxeko hobekuntzak

Aireztatze sistema berria



Pertsonen kontagailu berria



Aireztatzeko leiho berria





Zerbitzuak

Arreta eta bideraketa

Informazioa, orientabidea eta harrera
Emakumeen Etxeko bertako balibideetara
edo kanpokoetara bideratzea.

Egilea: Emakumeen Etxeko bertako langileak

Astelehenetik ostiralera 10:00 – 21:00.

Hitzordurik gabe



Etxeko langileentzako aholkularitza

Eskebideak eta betebeharrak, soldatak,
kontratu motak, oporrak, egun eta ordu
libreak, kotizazioak, baimenak, kaleratzeak...
inguruko aholkularitza.

Telefono bidez eta presentzialki 106
emakume artatu dituzte; horietatik
30 kanpokoan erregimenean zeuden,
64 barnekoan erregimenean eta 12
enplegatzaileak ziren.

Emakume enplegatuetatik, 23 Euskal
Herrikoak ziren eta 83 atzerriarrak.
Jatorrizko herrialdeei dagokienez, gehienak
Honduras eta Nikaraguakoak ziren,
gainerakoak Kolonbia, Mexiko, Venezuela,
Nigeria, Bolivia, Errumania, Ekuador eta
Errusiakoak.

Kontsultak honakoak izan dira batez ere:
atzera egitea eta/edo kaleratzea, likidazioak
berrikustea eta kitapenak. Adiskidetze-
orriak idaztea.

Egileak: Ana Lopez eta Juana Aranguren

Astelehena 16:30 - 18:30. Hitzorduekin.



Aholkularitza juridikoa eta gizarte eskuhartzea

Espetxe eta zigor zuzenbidea.
Atzeritartasuna. Lanerako zuzenbidea.
Genero indarkeria. Hirugarren adina:
erretiroa, pentsioa, alarguntasuna...
Tramiteak egiteko laguntza.

144 esku-hartze egin dira; horietatik 26
indarkeria matxistarekin lotutakoak izan
dira, 15 arlo penalean eta 11 arlo zibilean.
Dibortzioei eta familia-prozesuei buruzko
zalantzei dagokienez, 56 esku-hartze izan
dira.

Erregularizazioari eta atzeritartasunari
buruzko gaiak asko eskatu dira, 36 esku-
hartze egin dira eta asiloari buruzko
zalantzak ere izan dira.

Doako justiziaren eskaerak, istripuagatiko
erreklamazioak eta DSBEarekin lotutako
arazoei buruzko alegazioak egin dira.

Deigarria izan da osasun mentaleko arazoak
dituzten emakumeen kopurua handitzea.

Egilea: Arrats Elkarteak

Asteazkena: 16:00-18:00. Hitzorduekin.



Gizarte aholkularitza

Askotariko informazioa eta aholkularitza:
gizarte laguntzak, etxebizitza, formakuntza
edota enplegua.

Alarma- eta normaltasun-egoera berri
honetan, zerbitzu honek laguntza- eta
jarraipen-funtzioak bete ditu hainbat
ibilbidetan, aholkularitzan, orientazioan eta
sareko lanean, bai etxeko beste ahalduntze-
zerbitzu edo -talde batzuekin, bai kanpoko
zerbitzuekin.

Artatutako emakume asko egoera irregularrean dauden migratzaileak dira, eta egoera gogorrek bizi izan dituzte: baliabiderik eza, lana, osasun mentaleko arazoak eta indarkeria matxista. Bakardadea etengabea izan da emakume migratuen kolektiboan, ez baitute ez familia-sarerik, ez sare sozialik.

Zuzenean artatutako emakumeak: 84

Jarraipena eta laguntza: 125

Koordinazioa: 35

Egilea: Rosa Ugalde Urbistondo

Asteartea: 16:00-18:00. Hitzorduekin.



Lege aholkularitza

Familia zuzenbidea. Lanerako zuzenbidea. Atzerriartasuna. Genero indarkeria.

154 emakume artatu dituzte; horietatik 20 indarkeria matxistaren eta/edo sexu-erasoen biktimak izan dira. Banantzeari edo dibortzioari buruzko kontsultetan ikusi da tratatu txarren historia bat zegoela, nahiz eta emakume batzuek tratatu nahi ez duten edo ez dute beren bikotekideen aurkako ekintza penalik hasi nahi izan.

Askok handitu dira honako hauei buruzko kontsultak: atzerriartasuna, irabazpidezko likidazioak, banantzeak/dibortzioak, seme-alaba adingabeen zaintzak eta jagoletzak, elikadura-pentsioak ez ordaintzea, bisita-erregimeneko ez-betetzeak, jaraunspenak, lana (kaleratzeak eta erretiroa), errentamenduak, aitalasuna (aitorpenak edo aurkaratzeak).

Emakume askori atzerriartasunerako edo beste edozein erakunde publikorako doako laguntza juridikorako hitzordua eskatu zaie; izan ere, pandemiatik izapide asko

telematikoki egiten dira eta emakume askok zailtasunak dituzte Interneten sartzeko.

Egilea: Emakume Bananduen Elkarte

Asteazkena 19:00-21:00. Hitzorduekin



Laguntza psikologikoa

Metodo interaktibo bat erabiliz, norberaren indarretan oinarritutako baliabideak aktibatzen saiatu gara. Helburua prebentzioa, larrialdietan eustea, aholkularitza eta ahalduntzea dira.

2020ko irailetik 2021eko uztaileira egindako arretak: 175.

2020ko konfinamendu-aldiaren ondoren, aurretiko patologiaak areagotu egin dira, eta, aldi berean, beste batzuk sortu dira. Indarkeria-kasuak ugariagoak dira, eta indarkeria-mota larriena, somatizazioekin. Biolentzia bikarioaren kasuak ere aurkeztu dira.

Askok baliabide erabilgarrien zirkuitu osoa egin ondoren iristen dira, eta haiek uste dute oraindik ere laguntza behar dutela berreskuratzeko. Askok sare sozialik gabeko egoera dute, konfinamenduaren ondoren larriagotua.

Emakumeak biktima artatzeko epaitegitik, Gizarte Zerbitzuetatik, familia-medikuetatik, Lanbidetik, Caritasetik eta parroketatik, sare sozialetatik, senideetatik edo adiskidetasun-harremanetatik, SOS Arrazakeriatik, psikiatratik eta abarretik datoz.

Egilea: Maite Santamaría

Asteazkena: 10:00-13:00. Hitzorduekin.



Biluzik mundura

Sexualitatearen inguruko informazioa eta aholkularitza zerbitzua.

2021eko urtarriletik ekainera guztira 110 kontsulta jaso dira. Hauen %55,45 presentzialki izan dira, %41,81 Instagram bitartez eta %2,72a posta elektronikoko bitartez. Kontsultak egin dituzten gehiengoak emakumeak izan dira; %85,45 (N=94), mutilak aldiz %14,55a (N=16).

Zerbitzu presentziala

Zerbitzura etorri diren pertsona guztiak (%100) emakumeak izan dira. Etorri diren pertsonen adin tartea zabala izan da, 11 urtetatik 44 urtetara. Presentzialki jasotako kontsultak gai ezberdinen ingurukoak izan dira, hauek 6 kategoriatan sailkatu ditugu: Hilekualitatea.

Instagram

2021eko Urtarriletik Ekainera Instagram bitartez guztira 46 kontsulta jaso dira. Hauetako 15 (%32,6) mutilak dira eta 31 (%67,5) neskak.

Emaila

Hiru kontsulta iritsi dira guztira posta elektronikoko bitartez.

Egilea: LAHIA 3.0

Astelehena 17:00 a 20:00. Hitzorduekin.



"Parekatu" Ikasketak eta prestakuntza ibilbideak homologatzeko aholkularitza

Atzerrian egindako ikasketen tituluak balioztatzeko aholkularitza eta laguntza.

Artatutako pertsonak: 407 -385 emakume eta genero gehiagoko 22-. 315 Latinoamerikako herrialdeetatik datoz (Nikaragua, Honduras, Venezuela, Kolonbia, Brasil), gainerako 92ak Europatik (Errumania, Bielorrusia eta Ukraina), Afrikatik (Aljeria, Maroko, Nigeria eta Senegal) eta Asiatik (Iran, Mongolia, Nepal eta Vietnán).

Covid 19ren testuinguruan, homologazio-prozesuan zerbitzu berriak sartu dira, prozesu horrek eragindako inpaktuak arintzen saiatzeko:

1. Eten digitala:

Administrazioarekin egin beharreko izapide guztiak telematikoki egin behar dira, eta horrek zaildu egiten du artatzen ditugun erabiltzaileen % 75ek izapide horiek eskuratzea. Horregatik, laguntza-orduak luzatu ditugu, eta ordu gehiago eman ditugu emakumeei prestakuntza ematen tailer txikiak eginez, izapide horiei aurre egiteko baliabideak izan ditzaten.

2. Arreta handitzea, IK Tak erabiliz:

Erabiltzaileen % 75ek lanorduak murriztu dituzte, eta horrek zaurgarritasun handiagoa eragin die. Denbora librean enplegua bilatzeko erabili behar izan dute. IKTen bidezko arreta zabaltzeak informazioa ahalik eta emakume gehienengana iristea errazten du.

3. Osasuneko emakume profesionalak osatutako bi talderen jarraipena eta laguntza:

Erizainen taldea (25 emakume) eta medikuen taldea (15 emakume).

4. "Zaintzeko ikasi" kanpaina.

Emakumeek profesionaltasun-ziurtagiri bat aurkezteko duten beharraren ondorio izan da (mendekotasuna duten pertsonentzako arreta soziosanitarioa gizarte-erakundeetan). Kontrataziorako ezinbesteko baldintza da, bereziki Aldundiak kudeatzen duen Laguntza Pertsonalerako Laguntza Ekonomikoaren (LPPE) baldintzapean badago.

Gipuzkoan 1790 emakumek dute ziurtagiria lortzeko beharra, Donostian 799k. Kanpaina honen bidez, Donostiako Emakumeen Etxean, 135 emakumeri eman zaie arreta.

Bestalde, azpimarratu behar da bideratzeak % 45 igo direla Lanbide eta Oinarritzko Gizarte Zerbitzuak bezalako erakunde publikoetatik.

Zerbitzu honetan guraso eta seme-alaben arteko indarkeriaren bi kasu identifikatu dira, dagokien zerbitzura bideratu direnak, eta Aukerarekin lankidetzan (sexu-lana egiten duten edo egin duten emakumeei zuzendutako programa bat, Arratsek zuzentzen duena), zortzi emakumeri lagundu eta ikasteko ibilbideak egin dizkiegu.

104 emakume bideratu ditugu etxeko ahalduntze-zerbitzu edo -taldeetara, esku-hartze integrala eskaintzeko.

Egilea: Bidez Bide

Osteguna: 10:00-12:00. Hitzorduarekin.

Ordenagailu eta Internet zerbitzua

Asteazken: Doako erabilera.

Ordutegia: 10:00 - 21:00





Elkarguneak

Indarkeriarik gabeko bizitzaren aldeko emakumeak

Indarkeria matxistari aurre egiten dioten edo aurre egin izan dioten emakumeen talde-espazioa, astean behin biltzen dena (librea). Autolaguntzako talde bat da, askapenerako gako askotatik indarkeriari irtenbideak bilatzen dizkiona. Emakumeek konfiantzazko leku gisa deskribatzen dute, elkar ezagutzeko eta autoezagutzeko leku gisa, non ahalduentzako tresnak, barne-saneamendurako tresnak eta beren bizitzaren kontrola berreskuratzeko balio dieten bideak aurki ditzaketen.

Espaziora 22 emakume bideratu dira, batzuek etengabe parte hartu dute, 10ek harrera telefonikoa jaso zuten espazioan parte hartu aurretik eta 6k banakako arreta jaso zuten.

Adin-tartea 19 urtetik 59 urtera bitartekoa da eta jatorri desberdinetakoak. Gehienak Gizarte Zerbitzuetatik eta Emakumeen Etxetik bertatik etorri dira. Baten bat Aldundiaren arreta-prozesuak amaitu ondoren iritsi da. Gainera, koordinazioak egin dira etxeko gainerako zerbitzuekin, laguntza psikologikoarekin, aholkularitza juridikoarekin...

Berlaratu diren emakumeek indarkeria mota desberdinak jasan dituzte: matxista, sexista eta zuzeneko genero-indarkeria: fisikoa, psikologikoa, sexuala, ekonomikoa eta instituzionala. Hainbat dinamika, teknika eta gai landu dira, emakumei ahalduentzearekin batera aldaketak izaten lagundu dietenak.

Jatorri askotariko emakumeentzako kulturarteko gunea

Jatorri desberdineko emakumeak taldean egoteko gunea da. Astean behin biltzen dira (joatea libre da), beren bizitzan migrazioa nola bizi duten elkarrekin aztertzeko. Zailtasunetatik ikasten dute eta banakakoen eta taldearen lorpenak sozializatzen dituzte. Osasun fisikoa eta emozionala hobetzeko eta bizi diren hirian gehiago sustraitzeko tresna eta baliabideak bereganatzen dituzte; isolamendutik ateratzen dira; euskal gizartea eta jatorrizko gizartea, biak, ezagutzen dituzte; elkarrekin aisialdi, dibertsio eta ezagupen ekintzetan parte hartzen dute.

Izena eman dutenak: 22

Hizkuntza: Gaztelania

Antolatzailea: Berdintasun saila

Formatzaileak: Beatriz

Zalakain eta Maider Andonegi (Sorburutziki) - Katherine Astudillo Aillón (ENARA Coop)

Izena eman dutenak: 17 emakume

Hizkuntza: Gaztelania

Antolatzailea:

Kulturaniztasuneko saila

Formatzaileak: Beatriz

Zalakain (Sorburutziki) Tania Cañas Siriany (ENARA coop)


Parte hartzaileen adina 27 eta 62 urte bitartekoa izan da, eta jatorriz honako herrialdeetakoak izan dira: Ekuador, Honduras, Nikaragua, Argentina, Mexiko, Maroko, Armenia, Peru eta Kolonbia.

Hona hemen landutako gaiak: erresilientzia, zainketa eta etxeko lanen ekonomia feminista, etxeko eta zaintzako langileen eskubideak, enplegurako orientazioa, autoestimua, autozaintza eta erlaxazioa, indarkeria matxista, generoa eta diskriminazioa emakume izateagatik.

Emakume gehienak Udaleko Gizarte Zerbitzuetatik, beste sail batzuetatik eta Etxetik bertatik datoz. Espazio honetan, konfiantzako espazio batean sentitzea lortu dute.

Batzuek sareak eraikitzea lortu dute, gehienek ez dutelako pertsona ezagunen sare zabala. Taldera joateari utzi diotenak arrazoi justifikatuengatik izan da, hala nola lana aurkitzeagatik, prestakuntza-ikastaroetara joateagatik edo etxetik aldatzeagatik.

Emakumeen erdiek etxeko beste zerbitzu batzuekin lotura dute edo izan dute, ikasketak baliozkotzeko orientabidea, laguntza psikologikoa, indarkeriarik gabeko bizitzaren aldeko emakume-taldea...



Neska gazteentzako jabekuntza gunea

Neska eta genero anitzeko gazteei (15 eta 20 urte bitarteko neska eta genero anitzeko oro) zuzendutako jabekuntza gunea da. Feminismoarekin, diskriminazioarekin, jabekuntzarekin, harreman parekideekin lotutako gaiak lantzen dira. Gune hau Jabekuntza prozesu bezala planteatzen da.

Neska Gazteentzako Jabekuntza Taldera hurbildu diren gazteen 17-22 urte bitarteko 6 neskek parte hartu dute aurtien proiektuan profila oso anitza izan da. Parte hartzaileek jasandako indarkeria matxisten inguruko gaiak landu dira.

Izena eman dutenak: 6

Hizkuntza: Elebiduna

Antolatzailea: Berdintasun saila

Formatzailea: Itsaso Cañada Peña Lahia 3.0 Sexologia eta Hezkidetza Elkarteko kidea (gazteen eremuan feminismoan, berdintasunean, sexualitatean eta indarkeria matxistaren prebentzioan aditua)

Asteartetan 17:30etik 19:30era, hamabost egunean behin.

Aholkularitza, Laguntza Taldea

Errotutako jarrerak eta erruduntasun sentimenduak landu nahiz aldatzeko. Indarkeriari aurre egin eta autonomia areagotzeko.

Gai konkretuen inguruko egonezina eta hausnarketa:

Doluak: banaketa, proiektu familiarra, etxe aldaketa Zainketa konpartitua Emozioen kudeaketa (tristura, amorrua, desengainua, beldurrak...) Apego tipo ezberdinak. Indarkeria zikloa eta tipoak Arnasketa eta erlajazio teknikak Zaintzailearen rola familian Nire pertenezia jatorrizko familian Gatazken kudeaketa lan esparruan eta bukatzeko San Telmo museora bisita gidatua.

Izena eman dutenak: 8

Hizkuntza: Gaztelania

Antolatzailea: Berdintasun saila

Formatzailea: Maider Andonegi

Asteartea, hamabostero
14:30 - 16:00. Hitzorduekin

Desgaitasuna duten emakumeen ahalduntze taldea

Desgaitasuna duten emakumeak elkartzeko gunea da, norbere burua ezagutu eta aitortu ahal izateko. Desgaitasuna duten emakumeek bizi duten diskriminazio bikoitzaren egoera aztertzea du xede talde honek, ahultasunari eta desperekotasunari aurre egiteko.

Pandemiarekin bizi den errealitateak ezinegon sortu du emakume parte-hartzaileengan, baina laguntzeko, enpatia izateko eta ulertzeko gaitasunak ere gora egin du. Esan daiteke taldea, banakako egoerak alde batera utzita, une onean dagoela gertatzen eta jasotzen den laguntzagatik, babesagatik eta entzute aktiboagatik.

Ikasturtean zehar Goienetxe Fundazioko emakumeekin espazioa eta denbora partekatze aukera izan dugu eta esperientzia oso ona izan da.

Oso garrantzitsua izan da bakarkako lana eta taldekakoa uztartzea. Prozesuak motelak dira, baina aurrerapausoak ematen dira. Familia barruko indarkeria-egoerak eta egoera matxistak jorratu ditugu, eta errekonozimendua eta erreparazioa landu ditugu. Halaber, oso garrantzitsua izan da generoa ikusaraztea, beren burua emakumetzat hartzea.

Ikasturtean zehar 16 emakumek parte hartu dute, batzuk online.

Izena eman dutenak: 16

Hizkuntza: Elebiduna

Antolatzailea: Berdintasun saila

Formatzailea: Rosa Ugalde Urbiztondo, ELKARTU



A black and white photograph capturing a moment of pure joy and movement. Five women, dressed in mid-20th-century athletic wear like tank tops and shorts, are captured in mid-air, jumping or running across a grassy field. Their arms are raised, and their expressions are of delight. The background is a soft-focus landscape with a tall, thin structure visible in the distance. The overall mood is one of freedom and happiness.

Matraka guneak

Irakurle eskola feminista

Irakurle talde honek pentsamendu feministan arakatzea du helburu, eta pentsamendu feministak sorturiko galderak, kezkak, giltzarriak eta diskurtsoak izan ditugu eztabaidagai ikasturte honetan. Horretarako, hainbat irakurgai (testu solteak, artikulua edota liburuak) landu, eta horien inguruko gogoeta egin dugu, betiere diskurtso feministek zabaldutuzten bidezidorretan ibiltzeko asmoz, nork bere esperientziatik hitz eginez, nork bere gorputzetik.

*Aforoa dela eta zozketa egin zen eta 19ra jaitsi behar izan zen kopurua. Hori dela eta, gainontzeko pertsonak itxaron zerrendan geratu ziren.



Iratxe Retolaza

Izena eman dutenak: 29*

Hizkuntza: Euskara

Antolatzailea: Emakumeen

Etxea Elkarte

Afektu-goseak euskal literatura garaikidean

Azken aldian afektu-goseen, afektu-minen eta afektu-sareen inguruko literatur lan ugari argitaratu dira, guztietan ere harreman pertsonalek zein nortasun sareek indar berezia hartuz. Irakurle-talde honetan afektuen inguruko literatur lanak izan ditugu hizpide, betiere genero ikuspegiak afektu-sare horiek nola zeharkatzen dituen aztertzeko asmoz.

*Gelaren edukiera hori zen.

Iratxe Retolaza

Izena eman dutenak: 10*

Hizkuntza: Euskara

Antolatzailea: Berdintasun
Saila

Parleras 1

Oraindik era honetako beste lantegi batzuetan parte hartu ez eta emakumeen literaturarekin bi urteko konpromisoa hartu nahi duten emakumeentzat pentsatua dago.

*Aforoa dela eta zozketa egin zen eta 19ra jaitsi behar izan zen kopurua. Hori dela eta, gainontzeko pertsonak itxaron zerrendan geratu ziren.

Mertxe Tranche

Izena eman dutenak: 22*

Hizkuntza: Gaztelania

Antolatzailea: Berdintasun saila



Parleras 2

Aurten, Prekuelan parte hartu edo lehen ere beste literatura lantegiren batean aritu diren emakumeentzat izan da ikastaroa.

*Aieten, aforoa dela eta zozketa egin zen eta 24ra jaitsi behar izan zen kopurua. Hori dela eta, gainontzeko pertsonak itxaron zerrendan geratu ziren.

Mertxe Tranche

Izena eman dutenak: 27*

Hizkuntza: Gaztelania

Antolatzailea: Berdintasun saila

Ventaneras

Novisimen (mende honetan emakumeek idatzitako testuak) eta emakume idazle klasiko handien arteko bidaia ekin dio Ventaneras ekimenak, horietako batzuk ahaztuak edo ezezagunak baitira, handiak izan arren. Aurten, gainera, egunkariak eta (auto)biografiak sartu ditugu, idazleei leiho intimoenetatik begiratzeko.

*Aforoa dela eta zozketa egin zen eta 24ra jaitsi behar izan zen kopurua. Hori dela eta, gainontzeko pertsonak itxaron zerrendan geratu ziren.

Mertxe Tranche

Izena eman dutenak: 25*
Hizkuntza: Gaztelania
Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

Antzerki laborategi feminista

Gure gorputzekin eta emozioekin konektatzeko gunea sortu dugu, aniztasuna ospatuz. Antzerki-jolasaren bitartez, talde lana zein entzumena landu ditugu, taldean sortu diren ikuspegi ezberdinei erreparatu diegu eta gizarte heteropatriarkalari aurre egiteko estrategiak entseatu ditugu guztion artean. Besteak beste, zapalduon antzerkiaren ezagutzetatik abiatu gara, hausnarketa feminista bat helburu izanda.

*Aforoa dela eta zozketa egin zen eta 19ra jaitsi behar izan zen kopurua. Hori dela eta, gainontzeko pertsonak itxaron zerrendan geratu ziren.

Aitziber Eguskiza

Izena eman dutenak: 28*
Hizkuntza: Elebiduna
Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea



Batukada feminista

Jabekuntza ardatz eta perkusioa tresna bezala erabiliz, talde lanean batukada feministak esan nahi duena landu, ulertu eta praktikara eraman dugu. Musika oinarririk izan beharrik gabe, erritmo ezberdinak ikasi ditugu eta dinamika ezberdinekin elkar ezagutu, talde izaera landu eta gozatu dugu.

*Entseguak larunbatetan eta txandatu.

Arantxa Vicedo eta Ainara Sarasketa

Izena eman dutenak: 45*

Hizkuntza: Elebiduna

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea



Xakea

Talde honen helburua izan da, batetik, lehen urratsetatik abiatzea, eta bestetik, xakean dakitenak goragoko mailetan trebatzea, ilusio berdina daukaten emakumeekin jokatu ahal izateko.

*Guztira, bi taldetan.

Elisabeth Aguirre eta Leire Cruz

Izena eman dutenak: 26*

Hizkuntza: Gaztelania

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

Taldeko kantu gunea

Donostiako Emakumeen Etxeko abesbatzak, “Ederlezi” Emakumeen Abesbatzak, adin, jatorri eta esperientzia desberdineko emakumeak batzen ditu. Abestuz esperimentatzen eta partekatzen dugu musikak duen boterea, kontzientziak mugitzeko eta geure buruak ahalduntzeko, energia eraldatzaileak sortuz. Errepertorioak munduko folkloreko abesti polifonikoak hartzen ditu barnean, eta baita emakumeok idatzitako edota sortutako abestiak ere.

*Online.

Bettina Aragon

Izena eman dutenak: : 38*

Hizkuntza: Gaztelania

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkarte

Klown

Gune honek bizitzaren gorabeherak barrearen bidez exorzizatu nahi ditu. Bertan barreak potentzia sendatzailea daukala ikusi ahal izan dugu ikasturtean zehar eta zaintza eta konfiantzazko leku batean geure buruaz barre egiteak, munduaren aurrean jarrera boteretsuagoa lortzera eramán gaitzakeela.

*Aforoa dela eta zozketa egin zen eta 19ra jaitsi behar izan zen kopurua. Hori dela eta, gainontzeko pertsonak itxaron zerrendan geratu ziren.

Beatriz Egizabal

Izena eman dutenak: 32*

Hizkuntza: Elebiduna

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkarte





Formakuntzarako
blokeak

Autodefentsa ikastaroak

Eraso matxistei aurre egiten ikastea eta kalean aske sentitu ahal izatea da autodefentsa ikastaroen helburu nagusia.

Emagin

Izena eman dutenak: 108

Hizkuntza: Euskara

Antolatzailea: Berdintasun saila



Empalabramiento

Empalabramiento hezkuntza metodo bat da, hezitzaileak berak, Nerea del Campok, sortutakoa. Emakumeen jabekuntza sustatzea du helburu, bigarren hizkuntzatzat gaztelania hartu eta hala hitz eginez (euskarazko zertzelada batzuk ere sartuta). Gaztelaniaz hitz egiten ez den herrialdeetako emakume migratuentzat da, beren eskubideak izendatzen eta aitortzen ikasi eta eskubide osoko herritar izateko autonomia lortzeko.

Nerea del Campo

Izena eman dutenak: 8

Hizkuntza: Gaztelania

Antolatzailea: Kulturantzitasun saila

Sexuaz hitz egin dezagun

Sexua eta sexualitatea gorputzen arteko komunikabideak dira. Horrela izanda, eraldatzeko eta askatasunerako tresna izan daitezke, baina aldi berean, kontrolatzeko eta erreprimitzeko arma bezala erabili ditu sistemak. Gizarte patriarkal, heteronormatibo, kapitalista, arrazista eta kolonial honetan, moralaz mozorrotu dira gorputzen antolamendua, afektuak eta praktika sexualak, baita osasunaz eta zientziaz ere. Gure gorputzak eta horien bidez hezurmamitzen ditugun desirak kaosaren agente dira. Eta sistemak badaki hori. Guk, feministok, beste plan batzuk ditugu.

*Online.

Irantzu Varela

Izena eman dutenak: 28*

Hizkuntza: Gaztelania

Antolatzailea: Emakumeen
Etxea Elkartea

Osasun mentalaren gaineko begirada feminista bat II

Osasun mentalekin zerikusia duten diagnostikoak dituzten pertsonen erresistentziak, agentzia eta indarberritze estrategietako batzuk aztertutako ikastaro honetan. Ekintza ezberdinei buruz hitz egin dugu zeinak oinarritzat duten gorputza, elkar laguntza taldeak edo, oro har, komunitate laguntza.

*Aforoa dela eta zozketa egin zen eta 19ra jaitsi behar izan zen kopurua. Hori dela eta, gainontzeko pertsonak itxaron zerrendan geratu ziren.

Maria Zapata,
Itxaso Martin,
Maier Irigoien

Izena eman dutenak: 21*

Hizkuntza: Elebiduna

Antolatzailea: Emakumeen
Etxea Elkartea



Ikusgai jarritako eta bortxatutako gorputzak... Emakumearen irudia Artearen Historian

Lola Roldan

Museoetan ikusten ditugun irudiekin ez gara izutzen, nahiz eta emakumeen aurkako indarkeria agertu. Hala ere, museo handiak bisitatzea, Artearen Historiak maisutzat jo izan dituen lanak biltzen dituztenak, ibilbide bisual bat izan ohi da, non emakumearen aurkako bortxaketak, bahiketak eta gainerako irainak zabal jasotzen diren. Maisulan hauek emakumeen kontrako indarkeria azaleratzen dute zerbait ederra, estetikoa eta plazerezkoa izango balitz bezala. Indarkeria matxista horiek naturalizatzen dira eta, era horretan, gizakiok praktika hauek barneratzen ditugu.

*Aieten, aforoa dela eta zozketa egin zen eta 24ra jaitsi behar izan zen kopurua. Hori dela eta, gainontzeko pertsonak itxaron zerrendan geratu ziren.

Izena eman dutenak: 26*
Hizkuntza: Gaztelania
Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea



Laborategi feminista: eskuz eta baimenik gabe

Pentsamendu dekolonial eta antiarrazistaren inguruko bidaia teoriko-praktikoa, pribilegioak berrikusiz eta hegemonikoa deseraikiz, muga eta desberdintasunetik aliantza feministak sortzeko.

Cony Carranza,
Tania Cañas

Izena eman dutenak: 18
Hizkuntza: Gaztelania
Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

Zahartzaroa ez ote da gai feminista bat?

Feminismo euskaldunaren sektore handi bat zahartzen ari da baina ia ez gara hausnartzen ari, ez behitzat mugimendu bezala, indibidualki zein kolektiboki honek dakarrenaz. Saio hauetan zahartzeko esperientziaren inguruko hausnarketa kolektiboa egin dugu eta baita esperientziarako nahiz praktika politikarako ekar ditzaken aldaketez eta alternatibez ere.

Mari Luz Esteban

Izena eman dutenak: 19
Hizkuntza: Elebiduna
Antolatzailea: Emakumeen
Etxea Elkarte

6aur egungo eztabaidaz hitz egin dezagun: feminismoaren subjektu politikoaz

Mugimendu sozial guztiek subjektu politiko bat behar dute. Mugimendu feministaren subjektu politikoa beti aritu da handitzen, baina feminismoaren zati batek gaur egungo proposamen batzuei kezkatik begiratzen die, hain zuzen “emakumeak” garen subjektu politiko hori desegin lezaketen proposamenei. Beste aldetik, fundamentalismoek hamarkadak daramatzate “genero ideologia”-ren aurka borrokan eta biologia gure patua dela aldarrikatzen.

Carmen Díez

Izena eman dutenak: 25*
Hizkuntza: Elebiduna
Antolatzailea: Emakumeen
Etxea Elkarte

*Aforoa dela eta zozketa egin zen eta 19ra jaitsi behar izan zen kopurua. Hori dela eta, gainontzeko pertsonak itxaron zerrendan geratu ziren.



Euskal dantzatik feminismora

Karla Agirre Aranburu,
Amaia Marin Zabala

“Dantza bikoteak mutilez eta neskaz osatuta daude beti. Gonak belaun azpitik joan behar dira beti. Ezin duzu hau dantzatu mutilentzat bakarrik da eta. Lehen emakumeek ez zuten plazetan dantzatzen”... Tradizioa tradizioa da, baina euskal dantzen munduan feminismotik badugu zer aldatu.

Izena eman dutenak: 18

Hizkuntza: Euskara

Antolatzailea: Emakumeen
Etxea Elkarte



Bizirauteko feminismoa: tresna feministak pandemia osterako

Irantzu Varela

Tailer honetan proposamen feministak zainketa krisiaren eta sistemaren kolapsoaren testuinguruan kokatu ditugu, pandemiak egoera horretan jarri baikaitu. Horretarako, feminismoaren azken mendeko proposamenak ezagutu ditugu, proposamen teorikoetatik hasi eta praktika paradigmatico zein abangoardistenetaraino.

Izena eman dutenak: 11*

Hizkuntza: Gaztelania

Antolatzailea: Emakumeen
Etxea Elkarte

*Online.

6ako feministak plazera politizatzeke

Lantegi honetan espazio bat sortu dugu feminismoaren eta plazeraren arteko harremana eztabaidatzeko, hausnartzeko eta aztertzeke. Plazera aldarrikapen eta borroka feministen partetzat jotzen dugu, baita eraldaketa sozialerako elementu nagusizat ere. Plazera genero, kultura eta gizarte sisteman nola txertatzen den ikusi dugu; horretarako, ibilbide teorikoa zein praktikoa burutu dugu, hainbat euskarrien bidez, hala nola produktu kulturalak, zinema, musika, praktika artistikoak, testuak eta beste material batzuk.

Laura Muelas

Izena eman dutenak: 14
Hizkuntza: Elebiduna
Antolatzailea: Emakumeen
Etxea Elkarte

Ahantzura konjuratzen: emakume filosofoen legatua

Filosofia emakumeen aurkako ingurunea ez izateko ahalegina egitea da beste erronka handietako bat; horretarako, gure aurrekoak ikusarazi ditugu eta historian eduki behar duten lekua eman diegu. Gure aurrekari izandako pentsalariak argitara ateratzea izan da tailerraren helburu nagusia, eta beraiengandik ikastea.

*Aieten, aforoa dela eta zozketa egin zen eta 24ra jaitsi behar izan zen kopurua. Hori dela eta, gainontzeko pertsonak itxaron zerrendan geratu ziren.

Marisa Hurtado

Izena eman dutenak: 43*
Hizkuntza: Gaztelania
Antolatzailea: Emakumeen
Etxea Elkarte

Zientzia ona: ezinezkoa emakumerik gabe

Zientzia giza jarduera bat da; eta, beraz, ez dago aurreiritzietatik libre. Zientziako aktoreei buruzko estereotipoek, emakumezko erreferente faltak eta kultura patriarkalak emakume asko bultzatzen dituzte zientzia etorkizuneko aukera bezala baztertzerak. Benetan garrantzitsua al da emakume gehiagok lan egitea eta lidergoa izatea arlo zientifiko-teknologikoetan?

Marta Macho-
Stadler

Izena eman dutenak: 16
Hizkuntza: Gaztelania
Antolatzailea: Emakumeen
Etxea Elkarte



Ekintzak

Urria

13: Tailerra

“Gorputza lehen lurralde gisa”

Dinamizatzailea: Saioa Hernández.

Antolatzaileak: Lumaltik eta Berdinak Gara

Laguntzailea: Emakumeen Etxea Elkarte.



19, 20 eta 21: Zinea

“IX. Jardunaldiak emakumeek egindako zinema”

Urriak 19, “Bular eternoak”.

Urriak 20, “Printzesa erraria”.

Urriak 21, “Gau-ilunen neskak”.

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkarte - Zine batzordea

Azaroa

25: Manifestazioa

Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna



Abendua

14: Liburu aurkezpena

“Defensoras”

Antolatzailea: Lumaltik.

Laguntzaileak: Donostiako Udala,
Gipuzkoako Foru Aldundia



2021

Otsaila

Tailerra

“Gure errealitateak hemen eta orain”

Dinamizatzailea: Soraya Ronquillo

Antolatzailea: Bidez Bide.

Laguntzailea: Emakumeen Elxea Elkartea.

Otsaila, martxoa, apirila
eta maiatzean zehar



● Martxoa ●

8: Mobilizazio eguna

“Dena aldatu, sistema arrakalatu”



16, 23, 25: Jardunaldiak

“Noren desira? Pornografia gaur egun eta gure bizitzan”

Martxoak 16: Mónica Alario Gavilán.

Martxoak 23: Lucía Egaña.

Martxoak 25: Mertxe Tranche.

Antolatzailea: Emakumeen Etxeko

Erasoen Aurkako Batzordea.

Laguntzailea: San Telmo Museoa.



● Apirila ●

20: Tailerra

“Erreferente feministen tailerra. Emakume magrebtarrak.”

Dinamizatzaileak: Jatorkineko langileak.

Antolatzaileak: Jatorkin Al-Nahda, Kulturantzitasun saila, Gipuzkoako Foru Aldundia.



21, 28: Ikastaroa

“Lurraldearen defentsara bideratutako feminismoak”

Apirilak 21: Migrazioak eta zaintzak.

Dinamizatzailea: Cony Carranza.

Apirilak 28: Arrazakeria, heteroarautasuna eta disidentziak.

Dinamizatzailea: Jesenia.

Antolatzailea: Lumaltik.

Laguntzaileak: Emakumeen Etxea Elkarte, Donostiako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia.

30: Topaketa feminista

“Emakumeen Ahalduentze ekonomikorako eta partehartzerako aukerak eta estrategiak”

Hizlariak: Maialen Aginagalde (Mugariko Gabeko Ekonomilariak) eta Karina Perla (Estudio14ko ekintzailea)

Antolatzailea: Jatorkin Al-Nahda.

Laguntzaileak: Emakumeen Etxea Elkarte, Donostiako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia.



Maiatza

5, 12: Ikastaroa

“Lurraldearen defentsara bideratutako feminismoak”

Maiatzak 5: Lurren idokitzea, estraktibismoa eta Ongi Bizitzea.

Dinamizatzailleak: Dalila Argueta eta Olatz Talavera.

Maiatzak 12: Ugaltze eta sexu eskubideak eta emakumeon gorputzak.

Dinamizatzaillea: Aitziber Buñuelos.

Antolatzailea: Lumatik.

Laguntzaileak: Emakumeen Etxea Elkartea, Donostiako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia.

14: Topaketa

“Palestina-Euskadi. Landa-eremuko emakume eraldatzaileak”

Antolatzaileak: Bakerako

Lankidetzeta Batzarrea eta P.A.R.C.

Laguntzaileak: Emakumeen Etxea Elkartea eta Gipuzkoako Foru Aldundia.



18: Eztabaida feministak

“Urnietak y no es no”

Dinamizatzailleak: Asun Urbietak eta Juana Aranguren.

Antolatzailea: Plazandreak.

Laguntzailea: Emakumeen Etxea Elkartea.

24: Mobilizazioa

Gerraren eta desarmarearen aurkako emakumeen eguna.



Ekaina

Tailerra

“Poesia dekolonialaren idazkera”

Dinamizatzailea: Cristina Bocayá.

Antolatzailea: Bidez Bide.

Laguntzailea: Emakumeen Etxea Elkartea.

Ekainean zehar

15: Eztabaida feministak

“Aportes Ley vasca de Igualdad”

Dinamizatzailea: Arantza Campos Rubio.

Antolatzailea: Plazandreok.

Laguntzailea: Emakumeen Etxea Elkartea.

28: Mobilizazioa

Sexu Askapenaren Nazioarteko Eguna.



Uztaila

12: Formazioa

“Erroak Sartuko emakumeak”



Eskerrik asko
Emakumeen Etxea egiten
duzuen guztioi!

